

## FUNTSEZKO JARDUERAK

---

- Gure zerbitzua aste osoan 9:30tatik 20:00 orduz prest egongo da eta egun berezietan ordutegia luzatu egingo da.
- Zapatu arratsaldeetan ekintza desberdinak antolatuko ditugu, dantza saioak (astero dantza mota ezberdinak), hilean behin irteera kulturalak antolatuko ditugu museo desberdinetara joateko.
- Ekintza bereziak antolatuko ditugu urte-egunetan, inauterietan eta gabonetan. Egun berezi horietan bakarrik ez sentitzeko.
- Gure zentroa egoera onean mantenduko dugu eta birziklaketa bultzatuko dugu jarriko ditugun baliabide ezberdinekin.
- Bi hilero bezeroekin batzar bat egingo da hobekuntzei buruz hitz egiteko.
- Menuetan lehenengo platerra, bigarren platerra eta postrea eskainiko dugu.
- Jatekoetan berezitasunak dituzten pertsonentzako menu bereziak izango ditugu jatetxean; glutenbakoak, alergikoak, diabetikoak... Halaber berezitasunak dituzten nagusiak kolorezko pultserak eramango dituzte jateko ezberdina hartzen dutela desberdintzeko.
- Kalitatezko janaria eskainiko dugu, etxekoa bezalakoa.
- Gabonetan eta asteburuetan menu bereziak izango ditugu.
- Egunero sobratzen den jatekoa ez dugu botako, Karitaseri emango diogu.
- Lan egiten dugun hornitzaileekin kalitatezko produktuak dituzte.

